


# LAUBURUA, BIZI-INDARRAREN GURPILA

*Karlox Barrentsoro*

**E**uskaldunok txiki-txikitik ikusi izan dugu gure artean lau buruko ikur bixi bezain eder hau. Beste garai batzuetan abertzale-tasunaren ikurtzat hartzen genuen, kanpoan guztiz galerazirik zegoena bere barruan eskutaturik bailegoen. Bera zen gure nazio-sentimenduen



iturri isila, gure euskal nortasunaren altxor gordea, eta berarengan jartzen genuen askotan gure herri-nortasunezko konfidantza; gure izaera bereziaren oinarria, gure euskal kontzientzia zanpatuaren zimendu bizia bera balitz bezala.

Bera zen aldi berean bandera eta suzia; iragan ezkutu, orainaldi latz

eta etorkizun askearen lotura magikoa, itsaso eta izarra, sufrimendu eta esperantza, sustriak eta geroko hagalak; izaera bakar baten “lehen, oraina eta geroa” hitz batean esanda. Eta horregatik, gure haur-esku dardartiaren bidez, geure karpetak, liburuak eta koadernoak, makina bat lauburu oker, itsusi eta ez horren itsusi, handi eta txikiz jantzi ziren, ikaslegoetak beste dimentsio ezberdin batera eramanez.

Bapatean, bigarren mundu-gerrako film eta komikiekin topo egin genuenean, samin eta tristura handiz gure lauburuak anaia gaizto bat zuela ikusi ahal izan genuen. Gure lauburu ederra hiltzaile nazien sinbolo bihurturik; nola ote?. Ezin genuen ulertu. Gure idealen ikurra, gure izakera eta askatasunaren sinboloa alemaniar nazien eskuetan eta banderetan, nola eta zergatik?.

Zorionez, laster bilatu genuen irtenbidea; bereizketa. Alemaniar naziena karratua zen bitartean, gurea biribildua zen, eta beraienak ezkerre-ra begiratzen zuen bitartean, gureak eskuinera. Eskerrak!

Handik aurrera bide hartatik abiatu ginen, gure lauburu biribildu guztiak eskuin alderantz orientatuz. Hala ere, zenbait hilobi eta etxetako lauburu karratuak eta ezker alderanzkoak ikusterakoan kezka eta zalantza pizten zitzaigun gure baitan, baina




aurrera jarraitzen genuen geurearekin. Beraiek beraiena eta guk gurea; horixe!.

## SWASTIKAREN ZABALKUNDEA

Nahiz eta lauburu gure kulturaren elementu handia izan, gaurko euskaldunok ondotoxo dakigu lauburu edo bere izen jenerikoaz ezagunagoa den swastika, ez dela gurea bakarrik; munduko lau haizetara zabaldurik dagoenez, gizateria osoarena baizik.

Europa, Asia eta Ameriketako zibilizazioetan ikus daiteke; baita India, Txina eta Tibetetik, Alemania, Euskal Herria eta Islandiaraino ere. Aztekarrengandik grekoenganaino. Beraz, munduko mutur batetik beste muturreraino.

Kontutan hartu beharra daukagu swastikak oso tankera bereziak har ditzakeela. Hori bai, mamizko iza-



kera ondo gordez. Alde batera edo bestera begira dezake, hiru, lau, sei, zortzi, ... beso edo buru eduki ditzake, nahiz eta gure artean lau burukoa zabalduena izan; eta bere besoak karratuak edo biribilduak izan daitezke.

Swastika zaharrena Trasilvanian aurkitu da eta dirudienez, Neolitos aroko azken garaian egina omen da. Kristo aurrerko XIV. mendeko zenbait arrastotan agertzen zaigu berriro, eta baita Ilioneko (Troia) aztarnen artean ere. Kristo aurreko IV. mendean Indiako kulturaren ikus daiteke, eta Txinan Kristo ondorengo V. mendean. Mende bat geroago, hots VI.enean, Japonian azaltzen da eta une hartan garatzen ari zen budismoak bere ikurtzat hartu zuen. Geroztik mundu guztian zehar zabalduarik ikusi ahal izan da: Grezian, Erromatar Inperioan, Germaniar Herrietan, Euskal Herrian, Britainian, Errusian, Tibetean, wikingoen artean, Ipar eta Ertamerikako indiar kulturatan, ...

Geroztik, gure mendean, alemaniar nazismoak aryar odolaren sinbolotzat hartu zuen, berarekin batera bere teoria arrazistak zabalduz. Bitxikeria gisa, aipatu beharra dago 1925. urtean Panamako "kuna" indiarrek

matxinatu zirenean (goardia nazionalak akatuz eta beren lurretan "Tule" izeneko errepublika independentea sortuz) hondo laranjako ehunean egindako gurutze gamatua ban-deratzen hartu zutela.

### **ALEMANIAR NAZIAK ETA GURUTZE GAMATUA**


Lehen esan dugunez, swastika edo gurutze gamatua mundu guztian zehar zabalduarik dago, baina lurralde semitikotan, Egipton, Kaldean, Assirian, Fenizian, Palestinan, ... ez da ia ezagutzen. Honetaz oharturik, Haushoffer ideologo alemaniarrek swastika garai batean (antzinategian) zabalduarik egon zen herri aryarren ikurra zela atera zuen ondorio, eta herri alemaniarren entseina bezala proposatu zuen.

Aurretik, 1891.ean, Ernest Krauss-ek gauza bere defendatu zuen, eta 1908. urtean, Guido List-ek gurutze gamatua "Edda" izeneko epopeia errunikotik ateratako ezagupen esoterikoen eta aryarren odol garbiaren sinbolo zela argudiatu zuen.

Ikertzaile guztiek, swastikaren iluntasunetan sartzekoan, "Thu-

le" izen misteriotsuarekin egiten dute topo. Bai, kurioski askotan, swastikaren inguruan "Thule" garai bateko wikingoen urrutiko herri ezezagunaren izen santua azaltzen da, eta aurreko atalean ikusi dugun Panamako "kuna" indiarren lekukoa dugu eredu.

Esan dezagun ere, Errusiako tsarren gortean, etaagian teosofoen




Lauburua azken garai hauetan abertzaletasunaren ikurtzat harturik daukagu. Nonnahi eta noiznahi agertzen zaigu. Hona hemen 88ko kilometroak izeneko ekitaldian erabilitako marrazkia.

Hitlerrek ondo ezagutzen zuen swastikaren indarra, eta bere sinbologiaz baliatuz, botereaz jabetzen saiatu zen.

eraginez, aspaldi sartua zegoela Alexandra Ferodovna tsarinaren eskutik. Badakigu jakin azken tsarinak bere exekuzio aurretik Ipatieven etxeko horma batean swastika eta gutun misteriozua idatzi zuela. Soldaduek dena ezabatzeko agindu zorrotza hartu arren, ba omen dago nonbaiten gorderik aurretik ateratako argazkia ekintza haren adierazgarri. Gutun horren inguruan azalduko pertsona guztiak hilik suertatu ziren, eta kasualitatez hauetako baten itsasuntziak, Otto Bautenas baroiarenak, "Asgård" (irlandar ipuinetan Thuleri ematen zaion izen jatorra) izena zuen.

1925. urtean, nazional-sozialismoa, Horbiger ideologoaren teorieta oinarrituz, bere kideak erreklutatzen ari zen. Garai hartan sinesten zuten, duela 30 edo 40 mende Gobi basamortuan zibilizazio handi eta aurreratua zegoen; hondamendi (agian atomikoa?) ikaragarri baten ondorioz gero desagertuko zena. Baina esaten zuten, salbatu zirenak, Thor jainkoak gidaturik, Iparruropako eta Kaukasoko lurraldeetarantz abiatu ziren, lur berrietan beste zibilizazio txiroagoak eta atzeratuagoak berreraikiz. Horregatik ideologo naziak sustraietara itzultzea predikatzen zutenean, Ekialdeko Europa, Turkestan, Pamir, Gobi eta Tibet konkistatzea ere aldarrikatzen



## SWASTIKAREN SINBOLOGIA MAGIKOA

zuten; beren ustez, munduaren bihotz eta ardatza zen lurralde zabal hura menperatzen zuena munduko nagusi bihurtuko bait zen.


Hitlerren agintearen garaian, Tibet eta alemaniarren arteko harremanak sendotu eta ugalduta egin ziren, eta tibetar lamategietara makina bat delegazio bidali zuten. 1926.ean, Berlinen eta Münchenen hindu eta tibetar kolonia txikiak instalatu ziren, eta dirudienez, sobietarrak Berlinera sartzera alemaniar uniformeaz jantzitako himalaiar arrazako mila bat gorpu aurkitu zituzten.

Teoria naziak ziotenez, aryarrek mundu osoa konkistatuko zuten, swastikaren babesetik kanpo zeuden herri semitikoak eta bestelako bigarren mailako herri endekatuak lurberatik ezabatuz, eta beraien arteko talde gorenena, hots Thule izenekoak, mundua menperatu eta zuzenduko zuten milaka urtetan, hurrengo uholdea etorri arte.

Guzti hau ikusirik, oso erraza zaigu Bigarren Mundu Gerran gertaturikoa eta gurutze gamatuak munduaren begien aurrean utziriko heriotz eta odolezko orimen garratza ulertzea.

Bai European, bai Asian eta bai Ameriketean, swastika ikur magikotzat hartua izan da. Uste denez, berotasuna eta energiaren iturria, biziaren hazia, ... sinbolizatzen duen eguzkia eta bere etengabeko mugimendua agerteratzen digu. Erdigune batetik sortzen diren karratu edo biribil tankerako besoek (hiru, lau, sei, zortzi, ...), eguzkiaren berotasun eta energiaren etengabeko dantza, jira-bira, adierazi nahi omen digute. Ikusten dugunez, swastika bi aldeetara jira daiteke. Ezkerretara mugitzen bada lebogirotzen zaio eta eskuinetara begiratzen bada, berriz, destrogiro. Eta dirudienez, aurkako mugimendu bikoitz honetan hartzen du swastikak bere sinbologiaren esanahi handia.

Antzinako gizaki naturistak, mundua, osotasuna, bi alderditan banatzen zuten; bata ezkorra, gaiztoa, itsusia, ankerra, ... eta bestea, berriz, guztiz aurkakoa, hots, baikorra, ederra, ona, goxoa, jatorra, .... Bikoiztasun honen erdian oinarritzen zuten bere izate bera, bere bizia, eta baita bere inguruko izaki guztiena ere. Horregatik, swastika lebogirotak baikortasuna adierazten digun bitar-



tean, destrogioak bere aurkakoa, hots, ezkortasuna esan nahi du.

Beste batzuek identifikatu egiten dute swastika suarekin eta trumoiarekin (germaniar mitologian egiten den bezalaxe), baina bere barneko bikoiztasuna beti gordez eta agerteraziz. Alemaniaren ideologo naziek, tibetar lamek bezala, ondo ezagutzen zuten swastikaren sinbologia ezkutua eta horregatik bai lehenengoak eta bai bigarrenak bere esanahiaz eta bere irudiaz baliatu izan dira beren asmoak eta gogoetak azal erazteko. Ez da kasualitatea, Sobietar Batasuneko frontea irekitzerakoan Hitlerrek Kaukasoetako zenbait menditan, eskalatzailen bitartez, gurutze gamatuaren entseina gorri-beltza jar eraztea, eta ezta Tibeteko lamategietan garai onak edo txarrak adierazteko gurutze honi ematen dioten erabilera grafikoa ere.

Euskal Herrian, nahiz eta sinbologia hau jadanik guztiz galdurik egon eta duen zeregin apaingarria ahaztu gabe, lauburu eta zortziburuaren erabilpena euskal nortasunaren baieztatze eta indartzearen prozesuan sar genezake. Gauza bera gertatzen da Britainian hiruburuarekin; beren nortasun eta nazionalismoaren banderatzat harturik bait daukate.

Swastikaren bikoiztasunak antzeko handiak ditu munduko beste hamai-kazetara; esate baterako ekialdekoen "ying-yang" oinarritzko printzipioan ikur magikoa, edo erromatarren Jano jainkoa eta bere bi aurkakako aurpegiak, ... edo euskaldunon sinesmenen artean guztiz aurkakokoak diren jainkoen bikote ugariak: Mari eta Maju, Atarrabi eta Mikelats, Eki eta Ilazki, ...

Dena den, swastikak bizi-bizirik irauten du edozein tokitan, hormetan, liburuetan, eraikuntzetan, apaingarrietan, ... bere misterio gordea agerian utzi nahiko baligu bezala, bere magia esoterikoa beti aurrean eduki nahiko balu bezala, ... edo agian, bere besoan arteko loturagunean ezkututzen duen mugarik gabeko indar ikaragarria berriro gure artera askatu eta zabaldu nahiko balu bezala. Auskalo! ■■■■■■

## ZIENTZIA ETA NATURA

### 1. Animalia migratzaileen abenturak

*J. I. Abrisketa* (174 or.)

### 2. Euskal dinosauruak

*A. Martinez Lizarduikoa* (232 or.)

### 3. Hautsi ditugu kateak, espaziora goaz

*I. Irazabalbeitia* (224 or.)

### 4. Erleen bizitza ezkutua

*Martxel Aizpurua* (200 or.)

Harpidedun egin zaituz eta gure liburuak merkeago lortu (700 edo 600 ptatan harpidetza motaren arabera).

## HARPIDETZA TXARTELA

Izen-Abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_ Telf. \_\_\_\_\_

Herria \_\_\_\_\_ Post.Kod. \_\_\_\_\_

Bankua/Aurrezki Kutxa \_\_\_\_\_

Sukurtsala \_\_\_\_\_

Kontuaren Zenbakia \_\_\_\_\_

**GAIK** argitaldaria / S.Bartolome, 36-behea / Telf. 471304 /  
20007-DONOSTIA